

# STM

donostia**kultura**.com



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián




DONOSTIA 2016  
SAN SEBASTIAN

## San Telmo Museoa


Zuloaga plaza 1  
20003 Donostia – San Sebastián  
Telefonoa: 943 48 15 80  
santelmo@donostia.org  
[www.santelmomuseoa.com](http://www.santelmomuseoa.com)

# EMAKUMEEN KALEJIRA

San Telmo museoa



## IBILBIDE HISTORIKOA



Erakunde laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



Patrono pribatuak:



## AURKEZPENA

Donostiaren suntsipen eta berreraikuntzaren Bigarren Menduaren ospakizunak agerian jarri du historiari erreparatzeko era berri bat; besteak beste, emakumeen protagonismoa goratzeko. Izan ere, emakumeak beren hiriko eta garaiko protagonistak 1813 baino lehen eta geroago baziren arren, ia ikusezin bihurtzen zituen luzaroan iraun duen historiaren ikuspegi itxi samar batek, ia beti gertakari beliko edota instituzionaletara mugatzen zenak. Emakumeek hiriaren bizimoduan zuten garrantzia azaleraztea, bada, berez zor zaiena emateaz gain, gure iraganaren eta beraz gure orainaren ikuspegi integral bat eskaintzeko modu bakarra da. “Gizon handien” historiak, bada, emakumeak ez ezik, gizon gehien-gehienak ere ezkutuan uzten ditu. Iraganean, orainaldian bezala, denek, gizonek zein emakumeek, tentsioak tentsio eta adostasunak adostasun, elkarrekin lan egiten zuten, eta harremanetan zeuden, beren artean ez ezik, baita beste gizarteekin, beste lurraldeekin, beste itsasoekin ere, XVI. mendean geroztik global bilakatutako mundu batean. Hortaz, hau ez da tokiko historia bat, ez eta “emakumeena” ere; alderantziz, Donostia adibide hartuta, ia beti oharkabean utzitako edo gehienez ere anekdotikotzat aurkeztutako errealitate bat erakusteko eta irakasteko saio bat da.

Deskubritzeko ibilbide bat proposatzen dugu, hitzaren esanahi bietan: batetik, beti hor egon arren –edo egon delako– ezjakinean edo “naturalizat” hartutakoan ikusi ere egiten ez genuenaren berri emateko; bestetik, gaietan sakondu beharrean (ezin, gaietara hurbiltzeko lehen saio batean), bertako historian sustraitutako errealitate oparo bat agerrarazteko.

Ibilbidea Donostiako Alde Zaharrera eta lehen zabalgunera mugatzen da, hiriaren muina, udalerrri osoa ulertarazteko bide ematen digun nukleoa delako; eta oinez ibilita –emakume donostiarrek utzitako ondare sotila hobekien preziatzeko era–, kalitateko bisitaldia egingo bada gehienez ere ordu eta erdiko ibilaldia egin daitekeelako. Idatzitako euskari hau irakasleentzako edo bestelako taldeen arduradunentzako pentsatua dago, nahi izanez gero ibilbidea beren kasa egin dezaten, bai edukien aldetik, bai praktikara eramateko ezaugarrien aldetik. Gainerakoan, San Telmo Museotik bertatik kanpo egiten diren beste ibilbideak bezala, aske samarra da. Modu elkarreragilea askoz dinamikoagoa eta erakargarriagoa izaten da, talde bakoitzaren interesetatik hurbilago egoteko aukera ematen du eta: datu hutsak ematetik harago, kontuan hartu behar da geldialdi bakoitzak hamaika gai jorrazteko parada eskaintzen duela. Proposatzen den aktibitatea, bada, gehienbat ahoz eta galdera-erantzunen bidez egingo da, etengabe gonbidatuko baitzaie partaideei begiratzera, komentatzera, kitzikatuzera, gogoeta egitera... alegia, bisitan zehar aktiboki parte hartuzera.

Horrexegatik ere, erraz asko molda daiteke hainbat ikasmaitalara, Bigarren Hezkuntzakoentzat zein helduen taldeentzat. Lehen Hezkuntzan ez da berez dimentsio historikoa lantzen, etapa handiak baino ez. Gure iraganari bestelako begiz begiratzeko gonbitea den heinean, ibilbidea ulertzeko ez da beharrezkoa alde aurretik Donostiako historia ezagutzea, ez 1813ko sute eta geroko berreraikuntzari buruz, hain gutxi emakumeek hirian eta oro har historian izandako protagonismoari buruz, aztergai mota hau arlo akademikoan ere berri samarra izaki.

Aktibitate osoa egiteko, **ordu eta erdi** kalkulatu da.



## EMAKUMEAK, HIRIGILE ETA GIZARTE ERAGILE

Historia primerako abagunea da, iraganean gertatu zena jakiteko baino areago, hartaz idatzi dutenek zer nolako interesak zituzten antzemateko. Haren oinarria, eta aldi berean oztopo nagusia, dokumentazioa da. Eta oztopo nagusia da dokumentazioak ez duelako jasotzen gertatutako guztia, hainbat arrazoiengatik eta une eta inguruabar oso desberdinetan idatziz jasotzea ebatzi zena baizik. Emakumeei buruzko dokumentazioa eskasa, irregularra eta maiz zeharkakoa izaten da, “garrantzi gutxiko” edo bestelako helburuak (diru-kontuak, auziak, testamentuak) zituzten agirietan bildua. Dena den, dokumentazio beraren irakurketa berriek gure historiaren ikuspegi joriago eta osoago bat eskain dezakete, eta eskaintzen ari dira.

Donostiak ia dokumentazio guztia galdu zuen 1813ko sutean. Eta geroko agiriek erakusten diguten gizartea burgesiak eragindakoa da. Haren emakumetasun eredia etxekoandre eta familiako amarena zen, sarri eredu idealagoa, erreala baino. Beraz, data haren aurretiko eta ondutiko emakumeen errealitate haren berri emateak dakarkigu, lehenik eta behin, irakurketa kritikoa egiteko ariketa: kontuan hartu beharko dugu diskurtso ofizialak zer dioskun ez ezik, baita zer ezkututzen digun ere.

Ikuspegi tradizionala gaur egun oso kuestionatua dago, batik bat murriztailea delako. Donostian, adibide paradigmaticoa Katalina Erauso da, “gizon” portatzen zelako ia beti anekdota deigarri modura aurkeztuta. Alabaina, garaiko dokumentazio urri baina esanguratsua aintzat hartuta, geure buruari galdetu beharko genioke ez ote zen, salbuespena baino, muturrekoa kasu bat izan, mendeetan zehar uste baino gehiago izan baitziren omen zegokien papera urratu zuten emakumeak: “moja alferesa”... Zer bada, ez al zegoen, “letra handiko historian”, emakumeentzat etxea eta komentua, eta gizonentzat gerra beste ogibiderik?

Francisca Akulodi donostiarra ia erabat ezezaguna da: XVII. mendearen bukaeran, hark berrinprimatzen zuen gaztelaniazko lehen kazeta, Anberesen editatua: “Noticias principales y verdaderas”. Egia esan, andrea ez ezik, haren senarra eta semeak, ugartetarrak, Gipuzkoako inprimatzaile ofizialak, ia ezezagunak dira, itsastarrek, militarrek, gortesaukek, deskubritzaileek eta bestek egindako “egitandien” aldean kulturarena gutxitan jorratutako arloa baita.

Gertakari beliko eta politikoetatik haragoko historia aztertu nahi duen inork ezin du biztanleen erdia baino gehiago alboratu. Orain arte, Donostiako historiak gehiago erreparatu die harresi eta arkitektura militarri, barruko eraikinei eta bertan bizi zirenei baino. Gainera, emakumeen kasuan, haien ekarpen publikoak, bertakoen ongizaterako ezinbestekoak, “omen zegozkien” jardunbideetatik abiatzen ziren gehienetan: hazkuntza eta hezkuntza, osasuna, jantzia, jana, familiako ondasunen kudeaketa... Ekonomia hitza “etxearen administrazioa” esan nahi duen oikonomia hitzetik eratorri izana ez da halabeharrez suertatu!

Ibilbidea San Telmotik abiatu, Abuztuaren 31 kalea hartu eta 1. puntura goazela, San Bizente ondoko kalea ezkerretik datorkigu: Na Rica (andre Enrika) kaleak hiriaren fundazioan eta mendeetako eboluzioan gaskoien eragina gogora ekartzeaz gain, santua, amabirjina edo erregina izan gabeko emakume-kale izen zahar bakarra dugu Donostian. Itzal handikoa izango zen, ezbairik gabe; baina izenaz aparte historiak ez digu beste berririk eman. Holakoak, zenbat?



## 1. Emakume eraikitzaileak

Valle Lersundi plazan, Kanoietakoan, Dora Salazaren eskultura berriaren ondoan.

Gauden toki honetako etxeak izan ziren, eliza eta komentuekin batera, 1813ko abuztuaren 31ko sutean zutik iraun zuten bakarretakoak: hain zuzen, etorri garen kaleak gertakari lazgarri haiengatik aldatu zuen izena, lehen Trinitate baitzen.

Emakumeak izan ziren erasoaren eta arpilatzearen biktima nagusiak... gerretan ohi zen bezala. Haietariko gutxi, ordea, ezagutzen ditugu izenez. Anartean erretzen jarraitzen zuen hiria berreraikitzea ebatzi zuten Zubietako bilera ospetsuen aktetan ere ez da emakumerik ageri. Alabaina, sutan zegoela ere hiria uzteari uko egin zituzten berrehun edo hirurehun biztanleen artean, bazeuden emakume asko. Eta askoz gehiago izan ziren hondakinak kentzeko eta gerora berreraikitzeko lanetan jardun zutenak, fisikoki ez ezik, baita sozialki eta ekonomikoki ere.

Ez pentsa aparteko gauza zela, salbuespen-egoera haren ondoriozkoa-edo. Alderantziz, emakume pobreak, eta herritar gehienak pobreak ziren, lanbide fisiko oso gogorretan aritzen ziren; ordaina, aldiz, eskasa biltzen zuten... areago, gizonak baino gutxiago kobratzen zuten, lan bera eginagatik ere.

Bigarren Mendeurrenak nahiago izan du azpimarratzea berreraikuntza, suntsiketa baino; halaber, emakumeen eraikitzaile-lana goraiatzeko du, biktimen paperaren aldean. Dora Salazar nafarraren eskulturak haiei guztiei omen egin nahi die. Iturri baten ondoan egin du, zeren eta, etxeetan urik ez zegoen garaian, iturriak izaten baitziren elkarbizitzarako gune nagusietarikoak, bai emakumeen artean, bai gizonekin.



*Abuztuaren 31 kaletik gora, Trinitate plazara, 2. puntura.*



## 2. Emakume santujaleak... ala botere zaleak?

Hemendik Santa Teresako kanpandorrea eta San Telmoko absidea, atzealdea ikus ditzakegu.

Erliijoak den-dena kutsatzen zuen garaian, zer hoberik familia baten ospeari eustearren, betierekotasunarekin lotzea baino? Eliza Katolikoak gehienbat gizonezkoena izaten jarraitzen duen arren, emakumeek asmatu zuten erlijiorearen abantailak berenganatzen. Gaur egun harrigarri bazaigu ere, moja-komentuek gizonen ia eraginik gabe beren buruak antolatzeke aukera eskaintzen zieten emakumeei.

XVII. mendean Simona de Lajust alargunak Udalarari utzitako dohaintzaz fundatu zen Santa Teresa komentua. Halatan, luzaro dirauten material –harritan– eta erakundean –ordena erlijiosoan– bere oroimena eta bere familiak donostiarrenean zuen ospea iraunarazi zituen.

Dena den, San Telmo da Donostiako komentu handia, tamaina eta balio arkitektonikoarengatik (Gipuzkoan Errenazimenduak duen adibiderik onena, 1813ko galerak handiak izan arren). Haren bidez, handikiro adierazten zuten beren igoera sozial, ekonomiko eta politiko azkarra Enperadore-Gorteko itzal handiko idiakeztarrek.

Idiakeztarrek? Fundazioaren sustatzaileak Alfonso eta Gracia Olazabal izan ziren; bide batez esanda, andrea zen donostiarra. Hark jarraitu zituen obrak senarra hil ondoren, eta bien semeak burutu zituen, gurasoen aldeko hileta-eliza gisa. San Telmo gabe, historiari idiakeztarrei buruz hitz egingo liguke, baina ez genuke haien emazteen berri askorik izango.



Kargu publikoak bete gabe ere, emakumeek parte hartzen zuten bizimodu sozial eta ekonomikoan, zeinek bere familiaren mailaren arabera. Alabaina, agirietan askoz gutxiago agertzen direlako, maiz haien berri izatea zail egiten zaigu gaur egun: Nor izan zen kale bati izena ematen dion Na Rica (Andre Henriketa gaskoiez) hura? Zenbat izan ziren hura bezalakoak, eta, jakina, hura baino apalagoak, batere albisterik gabe desagertu direnak?



### 3. Emakume hezitzaileak

Tradizioz, seme-alabak haztea eta heztea emakumezkoen, bereziki amen egitekotzat jo izan da. Alabaina, "irakaskuntza"; hots, ezagutza teorikoak eta praktikoak idazketa/irakurketa bidez helaraztea, mendetan latinez edo latinetik eratorritako hizkuntzetan, boterearen eremuko zenez, maskulinitateari lotuta egon ohi da. Eskolaratze orokorra izan zen XIX.eko aldarrikapen progresista nagusietariko bat. Haren ezarpena, berriz, mailakakoa eta irregularra: neska pobreak izan ziren eskolatzen azkenak. Egia esan, XXI. mendean bertan, pobretutako herrialde askotan haien hezkuntzak jarraitzen du, egintza baino, aldarrikapena izaten.

Berriro ere, "umeen kontua izaki", emakumeak izan ziren eskolaratzea sustatu zutenak, mutilena ez ezik, baita neskena ere, bai baitzekiten ikasketarik ezak pobrezia erabiltzen zirela abiarazi eta itxi egiten zuela. Erakunde ofizialek, aldiz, ez zioten jaramon handirik egiten, emakume helduaren zeregina ama eta etxekoandre, edota soldada oso apaleko lanbide espezializatu gabeetan jardutea zelakoan.



© Elizaran Fundazioa

Micaela Elizaran Sarobek bi eskola sortu zituen 1917an. Haietako batek neska pobreei eskaintzen zien analfabetismoa/pobrezia bitasun itogarria gainditzeko modua. Urteak dira ikastetxea ez dela neskena soilki; baina gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasun gehien duten ikasleei laguntza ematen jarraitzen du.

Urgulleko bideari izena ematen dion Elbira Zipitriak beste aurreiritzi bat hautsi zuen, aurrekoarekin oso lotua: euskara, emakumeak bezala, etxekoa zela, eta ezdeusa ofizialtasunean, ikasketetan, negozioetan... alegia, boterean. Behin alfabetizazioa erdaraz orokortu eta gero (lehenago, jende gehienak irakurtzen ez zekienean, idatzitako hizkuntza garrantzi gutxiagokoa zen), euskaldun = pobre (arrantzale, baserritar, neskame, langile) identifikazioak abiarazi zuen XX. mendean hizkuntza ordeztzeko prozesua, frankismoak areagotu zuena. Elbira Zipitriak, aldiz, M<sup>a</sup> Dolores Goiarekin batera, euskarazko hezkuntza sustatu zuen, eta mistoa, hura salbuespena zen urteetan, aurrerapen sozial eta ekonomikoa euskararen erabilerarekin bateragarria zela uste zuten kaletarrentzat, sustatu ere.

Urgulleko bideari izena ematen dion Elbira Zipitriak beste aurreiritzi bat hautsi zuen, aurrekoarekin oso lotua: euskara, emakumeak bezala, etxekoa zela, eta ezdeusa ofizialtasunean, ikasketetan, negozioetan... alegia, boterean. Behin alfabetizazioa erdaraz orokortu eta gero (lehenago, jende gehienak irakurtzen ez zekienean, idatzitako hizkuntza garrantzi gutxiagokoa zen), euskaldun = pobre (arrantzale, baserritar, neskame, langile) identifikazioak abiarazi zuen XX. mendean hizkuntza ordeztzeko prozesua, frankismoak areagotu zuena. Elbira Zipitriak, aldiz, M<sup>a</sup> Dolores Goiarekin batera, euskarazko hezkuntza sustatu zuen, eta mistoa, hura salbuespena zen urteetan, aurrerapen sozial eta ekonomikoa euskararen erabilerarekin bateragarria zela uste zuten kaletarrentzat, sustatu ere.



Jesus Elosegiren argazkia © S.C.

Aranzadi

Santa Mariatik,  
harresian barrena,  
Portaletara, 4. puntura.



## 4. Emakume merkatariak

Portaletan, kai aldera nahiz Alde Zaharrera begira.

Hala eta guztiz ere, emakume askok, nola edo hala, gehiago edo gutxiago, bizitza publikoan parte hartzen zuten, ekonomikoan batik bat. Gehienbat iritsi zaigun ikuspegi historikoak garai zehatz bati eta alderdi sozial bati lotuta aurkeztu digu: XIX..XX. etako burgesiari. Nekazaritzan baliabide gutxiko euskal kostaldeko hiribildu txiki batean (XIX. mendearen erdialdera arte ez zen 10.000 biztanle izatera iritsi), batez ere merkataritzaz bizi zirelarik, emakumeen lanari uko egitea ezin eta nahi ere nahi ez zuten luxua izango zen.



Berrito ere emakumeek –jantziarena haien etxeko lana zelakoan– ia osoro egiten zuten jardunbide batetik abiatuta ikusten dugu emakumeak zirela ehungintzaz eta batik bat haren salmentaz arduratzen zirenak; bertan txikizka ehundu, josi eta denda txikietan salduta, jakina, baina baita nazioarteko salerosketan ere: Gaztela, Nafarroa eta Aragoiko artilea Donostian itsasoratu eta hemengo portura iristen ziren Herbehere, Ingalaterra eta Frantziako oihalak, Penintsulan edota Amerikan saltzeko bidean. Eta emakumeak maiz aurkitzen ditugu, bakarrik, senitartekoekin edo haien arteko elkarte txikiak osatuta, ekoizpenen elkartrukean, finantzatan, auzitan, eta abarretan, hartara lanerako gizon nahiz beste emakumeak kontratatuta.

Janarien negozioak ere, ogitan eskas zebilen lurralde batean funtsekoak, ia guztietan emakumeen esku geratu ohi ziren: hona hemen etxeko jardunbide batetik bizitza publikora eratorritakoaren beste adibide bat. Emakumeak ere, aurkitzen ditugu, baina gutxiago, euskal produktu nagusiaren merkataritzan, burdina eta eratorritakoenean; eta “kolonial” edo “itsasoz gaindikoetan”, eta abarretan.

Suteak dokumentazio ekonomiko gehiena erre zuen; baina geratutako datuek ez dute zalantzarako tokirik uzten: zeinek bere maila ekonomiko eta sozialetik, emakumeek protagonismo ekonomiko handia zuten. Egia da, noski, zenbat eta negozio-bolumen txikiago, sarriagoa izan ohi zela emakumeen presentzia. Horrexegatik ere, dokumentuetan dauden aztarnak txikiagoak dira, “paper asko” sortzen zuten negozio handietan gutxiago dira eta.

*Kaiaren eta  
Udaletxearen arteko  
plazatxora, 5.era.*



## 5. Itsas emakumeak

Arrantzaren inguruko lanak sexuen arabera banatu izan dira. Gizonak itsasora joaten ziren; baina arrainaren prozesamendua (deskargatzea, kontserbatzeko lehortzea edo gazitzea, biltegitratzea, saltzea...) emakumeen esku geratu ohi zen. Beste askotan bezala, anekdotak errealitate askoz zabalagoa eta gogorragoa ezkututzen du: andreek kaian bertan edo Bretxa inguruan zuzenean saltzen zutena, oso turistikoa izan arren, salmentaren zati txiki bat baizik ez zen. Duela mende erdira arte, emakumeak urrutieneko auzoetaraino joaten ziren saltzera, bai eta barnealdeko herri askotaraino ere, eta oinez, garraio bide merkeak orokortu arte.

Bainurako etxolak eraiki baino hiru mende lehenago ere, baziren txabolak Donostiako hondartzan. Ez, haatik, aisialdirako, emakumeen lanerako baizik. Han, harresiaren azpian, bakailoa lehortu eta fardeletan biltzen zuten, gerora saltzearren. Kontserba-fabrikak zabaldu zirenean ere, bertako langile gehien-gehienak emakumeak ziren, eta dira; industria hori, ordea, kostaldeko beste herrietan hedatu da, ez Donostian.

Saregileak ere desagertu dira Donostiako paisaiatik; baina ez lanbidea bera industrializatu edo orain gizonezkoek egiten dutelako, arrantza Donostiako portutik ia desagertu delako baizik. Mendetan eta mendetan lan "ikusezina" egin eta gero, ofizialki hartzen dira lanbide profesionaltzat saregileak, bai eta biltzaileak eta neskatilak ere (izenak berak dena dio), eta ez orain arte bezala "benetako langileen laguntzaile soiltzat".



*Hemendik Garibai kalera, orain KUTXA dagoen tokira, 6. puntura.*





## 6. Emakumeak industrian

Orain, Lehen Zabalgunea ospe handiko bizigunea da. Eraiki zutenean, duela mende eta erdi, ordura arte harresiak estututako hiri baten birika sozioekonomiko berria izan zen.

Foru erregimenari esker zergarik ordaintzen ez zuelako, tabakoa zen, betiere kakaoaren azpitik, XVIII. mende hasieratik Gipuzkoako Errege Konpainiak inportatutako produktu nagusietarikoa. Foruak ezabatuta, Diputazioak lehen tabako-fabrikaren ezarpena sustatu zuen, Garibai kalean. XIX. mendearen erdialdean, lehen industrializazioan, Donostiak turismoaren alde irmo egingo zuela oraindik garbi ez zegoenean, hainbat industria sortu ziren, eta haietan arrunta zen emakumeen lana, espezializatu gabea eta gizonena baino merkeagoa. Tabakoaren kasuan, trenbideak merkatu berriak zabaldu zizkion lehendik zetorren eta artisautzatik industrializaziora iragan zen emakumeen jardunbide hari, eta hainbesteko arrakastaz ezen azenean Egian, geltoki ondoan eraikitako Tabakalera handi batera lekualdatu baitzen fabrika; harekin batera ofizio bat eta autonomia ekonomikoko eta langile-kontzientziadun emakume mota bat garatu zen: zigarrogileena.

Baina gainerako industrietan ere lan egiten zuten; adibidez, eskulangintzatik ere bazetorkien ehungintzan. Frankismoa izan zen, emakumea etxean geratu eta ama izatera mugatu nahian, behintzat ezkonduetakoak soldatapeko lanetik urundu zituena.



*Gipuzkoa plaza, M<sup>a</sup>  
Cristina Hotelaren  
eta Victoria Eugenia  
Antzokiaren artekoa.*



## 7. Turismoa: erreginen zein neskameen zeregina

Isabel II.ak jarri zuen modan Donostiako hondartza, 1846. urtean itsasoko urak hartzera etorrira. Erbestera bidali zuen 1868ko Iraultzak bertan harrapatu zuen. Orduan eguzkia ez zen hartzen, saihesten baizik: zaildutako larruazalek kanpoan gogor lan egindako edo kresalak erretako bizibide gogorra salatzen zuten, eta larruazal zuria izaten zen bizimodu errazaren adierazpiderik behinena.

Erregina batek Gorte oso bat darama berarekin, eta Gorte batek eska litzakeen denetarikoa produktu eta zerbitzuak hornitzeko, askotariko enpresak eta saltokiak behar izaten dira. Aisialdiaren fenomenoaren erdietsi beharreko eredu berri bat zen, ahaltsuenengandik hasi eta, jada XX. mendearen bigarren erdialdean, herritar xumeenganaino. XIX. eta XX. mendeen artean, M<sup>a</sup> Cristinak, Alfontso XIII.aren amak (haren haurtzaroan Erregentea izan zen: hortik kalearen izena) eta Victoria Eugeniaren amaginarrebak, behin betiko bilakatu zuten Donostia erakargune turistiko.

Erregetzaren eta munduko aristokrazien distiratik harago, edo hobeto esanda honantzago, merkatarien hiria zelako jadanik Donostiak zeukan ostalaritza-tradizioa biderkatu egin zuen, lo eta jan-edaneko zerbitzuen eskakizunak handitu ahala. Eta, "sukaldaritzaren izen handiak" orain gizonezkoenak diren arren, "Belle Époque" emakumeak izaten ziren ostalaritza-zerbitzu guztiak eskaintzeko arduradun nagusiak, etxe-alokatzaile izan nahiz neskame, zerbitzari, sukaldari, arropa-lisatzaile edo besterik izan, guztira ia mila eta bostehun langile baitziren.



Victoria Eugeniatik  
Bretxara.



## 8. Kaleko baserriarrak

Orain anekdotikoa badirudi ere, baserriarren eguneroko tratua izan zen mendetan zehar kaletarrei jaki freskoak helarazteko modu ia bakarra. Euskal emakumearen botereari buruzko literatura zabalean hala agertzen bada ere, murrizalea da euskalduna eta baserriarra bateratzea, kaletarrak euskaldun ez balira bezala, bai eta etxeoandrea eta emakumea bateratzea ere, emakume asko ez baitzen etxeoandre, hau da, ezkonutako ama. Horrez gain, kontuan hartu behar da emakume baserriarraren ustezko boterea, praktikan, etxera eta inguruko baratze eta ukulu txikikora mugatzen zela. Garrantzi ekonomiko handiko salerosketak, abere handiak, uzta biltzea edo belar eta iratze segatzea, lurrak, eraikinak... halako erabakiak gizonen hartzen zituzten, eta gehienez ere etxeo andrearekin hartuko zituzten, ez etxeo beste emakumeekin, izeba, arreba, alaba ezkongabe asko egoten baitzen.

Baina hiriguneetatik hurbil zeuden baserrietan, hala nola Donostiakoetan, etxeo eguneroko ekonomiaren ardura edukitzeak (frutak, barazkiak, arrautzak, oilaskoak... eta esnea: XX. mendearen hasieran mila esneketari baino gehiago joaten ziren Donostiara egunero) emakumeei saltzeko eta beraz erosteko aukera ematen zien. Eta ez ahaztu lan-indarra ere bazirela, kalean ur gutxi izanda ezin egin eta baserriarrak izaten zirelako erreketan arropa garbitzen zutenak.



Hau da, lan pila eta etekin eskasa, kudeatzeko ahalmen ikaragarria eskatzen zutenak. Baina, era berean, alferrik galtzen uzten ez zen aukera.

Oharra: inude ospetsuak, beren janzkera tipikoa eta guzti, baserriarrak izaten ziren, kaletarrak baino mardulagoak eta osasuntsuagoak zirelakoan. Baina haien presentzia publikoa Donostian, orain folklorizatua, preziatutako lanbide baten harrotasuna baino, gehiago zen familia dirudunen adierazgarri: zenbat eta inude eta neskame gehiago eta "apainago" erakutsi, hainbat aberatsago ziruditen haien ugazabek.

*Hemendik San Telmora joan eta  
Museoa bisitatzea gomendatzen da.  
Ondoko Narrica kaletik joanda, 2.  
puntuan esandakoa gogora daiteke.*



- 1. Mujeres constructoras
- 2. Mujeres religiosas
- 3. Mujeres educadoras
- 4. Mujeres comerciantes
- 5. Mujeres marineras
- 6. Mujeres industriales
- 7. Turistas y trabajadoras
- 8. Baserritarras urbanas

